

BALEIKE

1918-7-16


Zumaiatik 8 itsas miliatara

Lyndiane ontzia erasotua

Erasotzailea,

ub-103 itsaspekoa

35 hildako



I MUNDU GERRA ZUMAIAN

'LYNDIANE'-REN SARRASKIAREN MENDEURRENA

 **Etorkizuna da** |

Etorkizuna da gure seme-alabena

Etorkizuna da jasangarria

Etorkizuna da hezkuntza

Etorkizuna da emakumezkoena

Etorkizuna da geurea

Etorkizuna da berrikuntza

Etorkizuna da kohesio soziala

Etorkizuna da euskara

**Gipuzkoaren etorkizuna da
guztion artean eraikitzen
duguna.**

Parte hartu

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz



BALEIKE 278 2018-UZTAILA

Aurkibidea

- 5 **Aurrena** Gorka Zabaleta
Algorri eta ni
- 6 **Hitz-Tantak** Koro Agirrezabalaga
eta Aitor Aizpurua
- 8 **Izpiak eta Hizkiak** Peio Romatet:
Arimak pintatzen
- 10 **Iritzia** Joseba Ossa:
Pazientzia eta tinkotasunez aurrera
- 11 **Errematea** Jose Castillo
Zumaia eta disneyifikazioa
- 12 **Erreportajea** *Itsasoak hildakoak
eta kakahueteak ekarri zituenekoa*
- 18 **Erreportajea** *Tatuajeak, modaz
haratago dagoen kultura*
- 24 **Erretratua** Irene Esnal, irudi
aholkulari baten lanak
- 26 **Bazkide kluba**
- 28 **Plazan Bazan**
- 33 **Osasuna** Rosa Azkue: *Nola egin
aurre beherakoari*
- 35 **Heziketa** Izar Arregi: *Sexu
harremanak nerabezeroan*
- 36 **Zientzia eta ingurumena**
Gontxalo Torre. *Gelidium corneum,
urtutako gelatinaren afera*
- 40 **Orduan bai** Imanol Azkue
Kartoizko kaxa bat
- 42 **Kultura** *Margolari bokazioa zuen
grabatzailea*
- 43 **Agenda** Uztaila eta abuztua
- 44 **Liburu artean** Asier Arakistain
Bihotz handiegia
- 45 **Kultura** Amaia Irazabal
Azala erre
- 46 **Azkena** Juan Luis Romatet
Zaletasun zimeldua

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea
Foronda Kultur Etxea.
Odieta, 2.
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Gorka Zabaleta
gorka@baleike.eus
Erredaktore taldea
Juan Luis Romatet

Izaskun Urbieta

Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia
Publizitate arduraduna
Felix Aizpurua

publizitatea@baleike.eus

Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k
kutxabank

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izotzak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943-86 21 52



AIZPURUA LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen seride eta lagunen elkarteá

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61



Amama taberna


Tel.: 943-54 31 64
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaiá (Gipuzkoa)

Ardantzabide ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Arotzategia: Sanlago, 40
Tel.: 943-86 16 31



OKANDEGIA Arkupera

Regala 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIÁ

OGI-EDER



Arruti ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU I BEHEA
943-54 34 96
20750 ZUMAIÁ (GIPUZKOA)



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH Service Bosch Car Service

Autos Zumaiá

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
Tel. 943-86 14 85
autoszumaiá@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



Bakur
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arnao

tel./faxo 943-14 83 06
bakur@euskalnet.net



Basodi albaitaritza

filibertoia Iñaki Gormendio

Basodi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
vetinari@basodivet.com
www.basodivet.com

Golbez: 11-13 / Arratsaldeak: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbetean bita
Lanlehiatarako: 605 72 87 07 Etxez eteko zerbitzua



BASUSTA erretegia • asador

José Blázquez

Paxito Etxezarreta, 25
20750 Zumaiá (Gipuzkoa)

Tel.: 943-86 20 73
943-86 04 88
asadorbasusta@hotmail.com

BEDUA ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9
20750 ZUMAIÁ - Gipuzkoa
tel. 943-14 33 69

Algorri eta ni



GORKA ZABALETA

Nire oroitzapenen biltegian "Algorri" bilatzen dudanean, aitona Joxemari etortzen zait gogora. Haur nintzela, uda parteko egun asko egiten nituen Larretxon, izekoren etxean, eta ondo gogoan daukat nola joaten ginen aitona eta biok Algorrira, oldi bila. Orduan abentura bat zen niretzat labar gaineko bidezidorretik harralde eder hartaraino joatea. Eta bereziki gustatzen zitzaidan oldi berde haren bila joatea aitonaarekin, banekielako baserriko amona Inaxirentzat biltzen zuela. Aitaren eta amaren aldeko aiton-amonak lotzeko modu ederra iruditzen zitzaidan. Oldi haiek alkoholetan sartzen zituen amona Inaxik, kolpeentzat-eta igurtziak egiteko ona zelako, eta berde koloreko likido miragarri hura erabiltzen genuen etxean minak arintzeko.

Urte batzuk aurrera eginda, nerabezaroan esango nuke, neure burua ikusten dut mendiko bizikletarekin labar gaineko bidezidorretik Algorri puntaraino joaten, amildegira erortzeko batere beldurrik gabe. Garai hartan hasi nintzen, baita ere, aitaren kamerarekin lehen argazkiak egiten, itsasbehera aprobeztatu eta harraldetik Sakonetaraino bide eginez. Beste abentura bat zen hura, eta putzuzuloetan eta brankadetan zegoen bizitza deskubritu nuen.

Gogoan daukat oraindik, baita ere, Algorritik Pikoteazpi aldera lehen brankada pasata, haitz zabal batean eskolako laguna larrugorritan eguzkia lasai asko hartzen ikusi nuenekoa. Ikusi nuenak ez zidan inolako traumarik eragin, ez... Gogoan daukat, orduan kezka handirik gabe biluz zitekeelako bat, inor gutxi ibiltzen zelako paraje haietan.

Eta akordatzen naiz, duela 15 bat urte, gure herriko pertsonaia ezagun batek udako elkarrizketa arin eta ustez fresko horietako batean kazetariari emandako erantzunaz. Herriko leku gogoko eta ezkutu bat aipatzeko eskatuta, "kontakten badizut ez da gehiago ezkutua izango", erantzun zion. Algorri zuen gogoan, jakin badakit.

Zoritxarrez edo zorionez, ez gara *sekretua* gordetzeko gai izan. Lehen gure pribilegiotzat geneukana munduarekin konpartitzea tokatzen zaigu orain; eta bidezkoa da, guri ere gustatzen zaigulako munduko bazterrek ezagutzea. Baina jakin beharko dugu neurria hartzen.

Seguru nago denok duzuela *Algorri eta ni* bana idazteko adina bizipen, haitz gorri bat baino gehiago delako guretzat: haurtzaroko toki magiko, gaztetako bizipen intimoen babesleku, munduarekin eta gure buruarekin bakeak egiteko atsedenleku... Eta halaxe izango dira, baita ere, Macarella menorcarrentzat, As Catedrais Lugokoentzat edo Papagayo Lanzarotekoentzat. Askok aurreratuko genuke herrian zein herritik kanpo gaudenean hori guztia gogoan izango bagenu. ■■■

HAITZ GORRI BAT BAINO ZERBAIT GEHIAGO DA ALGORRI GURETZAT

Koro Agirrezabalaga eta Aitor Aizpurua

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Koro Agirrezabalagak psikopedagogia ikasi zuen eta betidanik hezkuntza ez formalean egin du lan. Aitor Aizpurua, aldiz, Irakasle ikasketak egin zituen. Lehenengo duela zazpi urte hasi zen lanean Gaztetxolan; bigarrena, berriz, duela bost. 12-17 urte bitarteko gazteak joaten zaizkie hara. Lanerako tandem polita egiten dutela aitortu dute, “gazteek ere hori aipatu izan digute”.

Urte dezente daramatza Gaztetxolak Zumaian. Zertan aldatu da?

Koro: Ni sartu nintzenean helburu bat markatu ziguten eta zen Zumaiako gazteria hona etortzea. Aurretik, kale hezitzaileen programako gazteak joaten ziren, eta zerbitzu zabalagoa eman nahi zen.

Aitor: Iraganean zegoen egoera horri buelta eman zitzaion. Erabiltzaileen profila aldatu zen, eta gaur egun, “arazoak” dituzten gazteak kale hezitzaileengana joaten dira, eta gainerakoak Gaztetxolara. Baina hori ez da guztiz eraginkorra.

Koro: Azkenean ez da inklusioa lortu. Zumaia pila bat daukagu Gaztetxolan, baina gehien behar dutenek ez dute erabiltzen.

Zein dira Gaztetxolaren helburuak?

Aitor: Gazteleku guztiei begirako helburu nagusiak ditugu. Hau da, gizaki aktibo eta kritikoak sortu, gazteek harreman sarea egiteko espazioak eskaini, beraien aisialdia gestionatzeko baliabideak eman... Gure funtzionamendua programazio batean oinarritzen da, eta gazteek beraiek proposatzen dute programazio hori.

Zer gai lantzen dituzue, batez ere?

Koro: Hezkidetzak, kontsumoa, beraien arteko harremanak, bizitzen dituzten sentimenduk zapalduak eta zapaltzaileak direnean...

Gai tabuak egongo dira...

Aitor: Bai, noski. Barrura begiratzea eskatzen duten gaiak. Hau da, norberaren burutik eta norberaren emozioetatik hitz egitea eskatzen dutenak.

Nolako gazte jendea joaten da?

Koro: Denetarik. Parte hartzaileak direnak, eta ez direnak. Guztiei eman behar diegu arreta, eta errespetatu bakoitzaren izaera.

Aitor: Batzuek lokal ludiko bezala erabiltzen dute. Beste batzuek gure arreta gehiago eskatzen dute, eta gai konkretu batzuk nahi dituzte landu...

Bertako hezitzaileak gara, erreferenteak kasu askotan, baina gurasoak izan gabe. Hori dela eta, agian guraso edo irakasleekin hitz egingo ez duten gai bati buruz galdetuko digute.

Nolako harremana daukate gurasoek Gaztetxolarekin?

Koro: Oso gutxi hartzen dute parte. Askok ez dakite hezitzaileok nor garen, zer lanketa eta proiektu egiten ditugun...

Aitor: Azkenean, beraien seme-alaben heziketako parte gara, eta gurasoen hutsunea sentitzen dugu. Urtero gonbidatzen ditugu guregana etortzeko, espazioa ikusteko, zalantzak argitzeko... Baina ez dugu erantzun handirik jasotzen.

Kanpoko ekintzak egiten dituzue Gabonetan, Aste Santuan eta udan.

Aitor: Egunpasako gauzak egiten ditugu, baina, agian, handiena Aste Santukoa da. Etxetik kanpo lo egitera joaten gara, eta gazteei talde lanean aritzeko eskatzen diegu ekintzak antolatzen, janaria prestatzen... Ardurak hartzen hasten dira.

Koro: Ekintza horien bidez informazio asko jasotzen dugu, eta baliagarria zaigu nola esku hartu behar dugun jakiteko.

Zein dira Gaztetxolaren gaur egungo erronkak?

Aitor: Niretzat nagusietako bat da gazteek beraien proposamenak, nahiak eta beharrak azaleratzeko gaitasuna edukitzea eta guk horretarako estrategiak eskaintzea.

Koro: Parte hartzea sustatzea. Gaztetxola guztietako arazoa da hori. Gazteen parte hartzea bermatzeko formakuntza eskatzen diegu erakundeei, eta ez dute eskaintzen. Azkenean, gazteen benetako interesak ezagutu gabe egiten dugu programazioa baina hori ez da gure nahia. Gazteak asko oinarritzen dira guk esandako ideietan, asko errepikatzen dira; ez da paradigmarik puskatzen. ■■■



Arimak pintatzen

ARGAZKIA ETA TESTUA: PEIO ROMATET

Gure bizitzako ordu asko pasatzen ditugu aurrea ikasten eta gero lanean. Saiatzen gara geratzen zaigun denbora apurra lagunekin eta senideekin aprobetxatzen; kirola, dantza edo gustuko dugun beste edozein aktibitate eginez eguneroko bizimoduak eragiten digun estresa arintzen. Baina ez dugu tarterik hartzen lagunarteko solasaldi pausatuak egiteko, kontu handi eta txikiez lasai hitz egiteko edo eztabaidatzeko.

Argazki hau Saharako errefuxiatuen kanpalekuan dago egina, jende egokiarekin topo eginez gero, solasaldi patxadatsuan arima asetzen den une horietako batean.

Light painting (argiarekin margotu) teknika erabili nuen argazkia egiteko. Argazkian ageri direnek geldirik egon behar izan zuten minutu erdiz, neuk linterna txiki batekin bakoitzaren gorputza argiarekin margotzen nuen bitartean. Une batez, gaueko lasaitasuna hausteko jolas polita izan zen. ■■■

Datuak: *Leica Bridge V-lux typ 114; 25mm; ISO 400; F8; 30 segundoko esposizioa.*







JOSEBA OSSA

Pazientzia eta tinkotasunez aurrera

Urte asko igaro dira 2009an ingeniari enpresa batek enkargua jaso zuenetik Zumaia eta Arroa Behea lotuko lituzkeen bidegorri baten proiektua idazteko. Urte gehiegi, gure ustez. Urte gehiegi, zain dagoenarentzat.

Handik bost urtera, 2014an, lehen fasea inauguratu zen, Zumaia eta Narrondo artekoa, eta horrek motibazio berezia eman zigun gure borroka indartzeko, eta ekimen berriei bide emateko. Batzar irekiak, sinadura bilketa, Zestoako Udaletxeko plenoetan agerraldiak, martxa herrikoiak Zumaia eta Zestoatik, pankartak, mozioak, bilerak erakundeetako ordezkariekin, bi agerraldi Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mugikortasun Batzordean, eta abar.

Bestetik, eta gure borroka bidegorrian zentratu bada ere, horrekin lotuta bide segurtasunarekin lotutako bi eskaera izan ditugu: Bombas Azcue ondoko bidegurutze arriskutsuari irtenbidea ematea (biribilgune edo rotonda proiektua) eta Arroa Beheko autobus geralekuan zebra bidea jartzea.

Alderdikeriak nagusi?

Azken urteotako borroka honetan hitz eder asko jaso

**ERREMINTAK HARTU
ETA UROLA
TRENBIDEKO ZATIAK
GARBITZEN HASI GARA
AUZOLANEAN**

ditugu. Ez digu inork kontra dagoenik esan. Baina gero, erabakitzeke orduan, garbi dago gure eskaerak ez duela lehentasunik, ez behintzat Mugikortasun Sailean agintzen duen alderdiarentzat. Eta azkenaldiko inbertsio gehienak beraiek agintzen duten udalerrietan egin dira: Irun, Lasarte, Pasaia, Eibar... Azpeitia aipatzen dute beraiek salbuespen gisa, baina badakigu lehendik sinatuta zegoen hitzarmen bat betetzera behartuta zeudela. Beraz, salbuespen horrek ohiko joera berreksi besterik ez du egiten.

Horregatik eskatu genion (eta eskatzen diogu) Alderdi Sozialistari hain begi onez ikusten duen gure zati honi ere erantzun bat eman, eta datorren urteko aurrekontuetan partida bat aurreikus dezan

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



JOSE CASTILLO

Zumaia eta disneyfikazioa

Algorrin jarritako egur ohol batzuk eztabaida eta haserrea piztu dute zumaia-ugariren artean. Baina benetako kezka ez da oholena, Zumaian garatzen ari den joera baizik, Udala horren kontziente izan ala ez.

Euskal Herria bezalako oso lurralde gutxi izango dira munduan ehun kilometroko erradio batean hainbeste kultur aniztasun, Michelin izar eta paisaia natural ezberdin biltzen dituztenak. Konfigurazio hori Euskal Herriaren eksklusibitate kulturala da, euskal herritarrek –eta bisitariak beste maila batean– gozatu beharko luketen ondarea. Baina, kapitalismoaren legeen barruan eta merkatuaren lehian berezitasun hori galdu egiten da, pixkanaka masifikatu eta komertzializatu egiten baita xahutu arte. Kapitalismoa ez da sistema arrazional bat, zerbait errentagarria logikaz eta patxadaz ustiatzen duena, hori agor ez dadin. Aitzitik, errentagarria eta monopolio errenta bat ekar dezakeen lehengai bat bilatzen badu (adibidez, Zumaia-aren berezitasun kulturala), hori xahutu arte ustiatzen du. Prozesu horri David Harvey irakasleak “disneyfikazioa” deitzen dio.

Laburrean, zenbat eta gehiago “disneyfikatu”, orduan eta gutxiago izango dira Zumaia eta Euskal Herria. ■

Urola bailara osoa lotuko lukeen zati txiki hau behingoz amaitu, eta herritar guztioi mesede galanta egin diezagun.

Bestetik, nabarmena da datorren urtean hauteskundeak datozela, eta alderdien arteko lehia areagotzen ari dela. Olatu interesgarri bezain arriskutsua izan daiteke guretzat. Izan ere, laguntza guztiak ongi etorriak izango badira ere, beti dago hor herri mugimenduen instrumentalizazioaren tentazioa. Guri, ordea, onura baino kalte handiagoa ekarriko liguke, nire ustez behintzat, eta hor ere independentziari eustea izan beharko luke gure erronketako bat.

Azken ekimena: bidegorria auzolanean

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi zenbait herritarrek proposatu

eta aurrera egin duen auzolanaren kontua: motozerrak eta bestelako erremintak hartu, Udalaren bidez aseguruak egin, eta tarteka-tarteka Urola trenbideko zatiak garbitzen hasi gara auzolanean. “Herritarrok ezin ditugu erakundeak ordezkatu, baina gu ordezkatzeko gaituztenek ez badute beren lana fin egiten, geuk egin beharko dugu” esan zuen herritar batek batzar batean, eta hortik abiatu da ekimena. Balioko ote du ezertarako? Gutxienez norbaiti koloreak ateratzeko? Aldundiari lana errazago uzteko? Edo gutxienez bidegorriari metro batzuk erantsi, eta horietaz gozatu ahal izateko? Auskalo! Guk, behintzat, geure lanean jarraituko dugu, pazientziarekin eta tinkotasunez! ■



* JANUSZ KORWIN-MIKKE: EIRODIPUTATU POLONIARRA




Lyndiane itsasontzia Dakarko portuan, zama kargatzeko zain.

Itsasoak hildakoak eta kakahueteak ekarri zituenekoa

Duela mende bat, 1918ko uztailaren 16an, Lehen Mundu Gerrako pasadizo lazgarria gertatu zen itsasoan, Zumaia parean: Alemaniako armadako itsaspeko batek Frantziako Lyndiane zamaontzia hondoratu eta eskifaiaiko 35 lagun hil zituen.

Testua: **Gorka Zabaleta**. Argazkiak: **Artxiboko irudiak**.



Gerrako pelikula bat egiteko moduko da, baina Zumaian gutxi ezagutzen dute *Lyndiane* zamaontziaren historia. Arrantzaleek jakiten dute non dauden hondoratutako itsasontziak, besteak beste, arrantza toki onak direlako; haietako bati *abellaneroa* deitzen diote Mutriku eta Getariako arrantzale zaharrenek, baina ezizenak gordetzen duen historia harrigarriaren arrasto handirik izan gabe: kakahuete pilo zekarrela, gerran hondoratu egin zutela eta inguruko hondartzak eta harraldea kakahuetez josita agertu zirela. Askoz gehiago ez. "Bigarren Mundu Gerran gertatu zela pentsatzen zuen jendeak, baina niri oso arraroa egiten zitzaidan gertaerari buruz gure zaharrek ezer ez gogoratzea", hasi da kontatzen Javier Carballok. Eta ikertzen hasi zen. "Halako batean, herritar batek kontatu zidan bere emazteak umetan Arritokieta kaleko ospitalean ikusi zituela lehen aldiz beltz batzuk, itsas istripu batean erreskatatutakoak. Emaztearen edadeagatik kalkulatu nuen 1915-1920 inguruko gertakaria izango zirela, eta pentsatu nuen akaso istripu hartan hildakoak ere izango zirela, eta erabaki nuen Parrokiara jotzea, hildakoen erregistrora". Eta hantxe hasi zen argitzen *Lyndiane* zamaontziaren historia, Laborie komandantearen izena aurkitu zuenean. "Jean Edmond Laborie, *Lyndiane* zamaontziaren komandantea, 1918ko uztailaren 16an hila. Eta haren datuekin batera, emazteak bidalitako gutuna, eskerrak emanez senarraren gorpua itsasotik erreskatatzeagatik". Hari-mutur hartatik tiraka, garaiko egunkarietako kronikekin eta han eta hemen aurkitutako datu eta agiriekin, *Lyndianeren* historia osatzea lortu dute Javier Carballok, Rikardo Torrek, Ignacio San Miguelek eta Raul Castrok.

Gertatu zena

Dakarren (Senegal) 2.500 tona kakahuete eta haragi kargatu eta Fecampera (Frantzia) garraiatzea zen *Lyndiane* zamaontziak zeukan agindua. 1918ko uztailean, artean, Lehen Mundu Gerra amaitu gabe zegoen eta *Lyndianek* zeramatzan haragia eta kakahueteak (olioa egiteko) fronteko soldaduentzat ziren. Eskifaian, 44 lagun, gehienak senegaldarrak, Jean Edmond Laborie komandantearen eta Yves Marie Le Cain kapitainaren agindupean. Tartean bazen, baita ere, bidaiariren bat.

Uztailaren 16an euskal kostalderaino iritsi ziren, aparteko arazorik gabe. Itsasoa lasai zegoen eta gaueko 22:00ak alderako gehienak



UB-103 itsaspekoa eta haren kapitain Lyndiane Hundius.

Zumaian Bizi Erosi

Uztaila

Eta gozatu Zumaiako merkealdia

ZUMAIA ELKARTEA
Merkataritza elkarteak
Asteartea eta ostegunak

CAJA RURAL


Euzkoan, euzkoan, Asteartea
Euzkoan, euzkoan, Asteartea

ZUMAIARIKO MERKATARITZA OSTALARIETZA ELKARTEA

Zumaiako Udala

MUSIKALDIA 2018 XXXV. edizioa

<p>31, asteartea 20:00 Oxford aretoa LEZ Laukotea-aurrezpena</p>	<p>Jose Mari Beobide gogoratzuz: organo kontzertua</p>	<p>JUAN FALÚ – gitarra klasikoa "Argentina en mi guitarra"</p>
<p>1, Asteazkena 20:30 Parrokia San Pedro Abesbatza</p>	<p>5, igandea 20:00 Maria eta Joseko Aretoan Sapere Aude Sinfonietta in Concert Fernando Velazquezek zuzenduta. -Concierto de Aranjuez Joaquin Rodrigo -3rd Symphony L. Van Beethoven</p>	<p>8, asteazkena Donostiako Musika Hamabos- taldia 20:30 Parrokia LA GALANÍA, Raquel Andueza</p>
<p>2, osteguna 20:00 Aita Mari KHAMI</p>	<p>6, astelehena 22:00 Oxford aretoa Zinea + musika Iñar Sastre: City Girl, F.W. Murnauk</p>	<p>9, osteguna 12:30 Mari kalea Faroese Clarinet Choir eta Faroese Saxophone Choir 20:00 Odieta Dantza Ertza "Meeting Point"</p>
<p>3, ostirala Donostiako Musika Hamabos- taldia 11:00 Oxford aretoa "Materia" haurrentzako Maushausek prestatutako tailerra 18:30 Mari kalea Kantu Kontari 20:30 Parrokia</p>	<p>7, asteartea 20:00 Oxford aretoa</p>	<p>11, larunbata 20:00 Herriko 3 gune DANTZAZ "GROWING YOUNG –UNE"</p>



atseden hartzen ari ziren. Zumaia parean zeuden, zortzi bat itsas miliatara, eztanda handi batek itsasontzia astindu zuenean. Raoul Olliet marinela gero lehorrean kontatu zuenez, hasieran pentsatu zuten makina gelan gertatu zela leherketa, baina segituan ohartu ziren eraso bat izan zela. Alemaniako itsas armadako UB-103 itsaspekoak jaurtitako torpedoak zulo handi bat ireki zuen kroskoaren popan. Ontziaren atzealdean eta aurrealdean defentsarako zeramatzaten kanoiekin erantzuten saiatu ziren, baina hondatu egin ziren biak. Eta konturatzerako, alemaniarren bigarren torpedoa, kroskoaren erdi-erdian. Ontzia bitan egin zen. Nola edo hala, ihes egiten ahalegindu ziren artean bizirik zeuden marinela.

Frantziako enbaxadak itsas armadari bidalitako sekretupeko telegrama batean daude jasota Raoul Ollieten eta bizirik atera ziren beste bi marinelen kontakizunak, detailaz beteak. Ollietek azaldutakoaren arabera, larrialditarako zeuzkaten hiru ontzi txikitik saiatu ziren ihes egiten, baina Alemaniako itsaspekoak ez ziren aukerarik eman. Beste bospasei kanoikada jaurtitzeaz gain, itsaspekoa bera erabili zuten iheslarien gainera joan eta ontziak erabat txikitzeko. Ez omen zuten bakerik izan denak hilda zeudela uste izan zuten arte.

Batzuk, baina, bizirik atera ziren. Ikertzaileek bildutako datuen arabera, bederatzi lagun. Hala ere, erreskatea ez zen berehalakoa izan, eta gaua itsasoan egin behar izan zuten, ohol edo ontzi zatiren bati lotuta, biharamunean haien bila atera ziren arte. Kronikek jasotzen dutenez, Zumaia talaiari Antonio Urbiet Etxabek ohol eta hondakin orban handi bat ikusi zuen itsasoan, eta ohartu zen pare bat lagun zeudela tardean, besoekin laguntza keinuak egiten. Abisua eman eta Zumaia abiatu ziren zenbait ontzi, erreskatera. Senegalgo bi marinela ekarri zituzten bizirik lehorrera, eta beste bost lagun gorpua. Bi senegaldarrak Arritokieta kalean zegoen ospitalera eraman zituzten; haiek izango ziren umetan Maria Teresa Nolaskoainek bere bizitzan ikusi zituen lehen bi beltzak. Berdin gertatu zitzaion Jose Manuel Linazasoro *Txulofrontoni*, koaderno batean idatzita utzi zuenez (Imanol Azkueren *Jose Manuelen ibilerak* liburuan jasotzen da horren berri).

Horrela ilustratu zuen eraso Ander Hormazurik 'Jose Manuelen ibilerak' libururako.

BIGARREN TORPEDOAK KROSKOAREN ERDIAN JO ETA BITAN EGIN ZUEN ONTZIA

UB-103 ITSASPEKOAK 70 ITSASONTZI HONDORATU ZITUEN URTEBETEAN



Zumaia duela mende bat, Lyndiane-ren hondoratzea gertatu zen garaian.

Zumaiara ekarri zituzten bost hildako haien artean zegoen Jean Edmond Laborie komandantea. Zumaia hilerrian ehortzi zuten, eta han egon zen hilotza, handik urte batzuetara emazteak jaso eta Frantziara eraman zuen arte. Gainerako lau hildakoen berririk ez dago. Parrokiako erregistroan ere ez. Azalpena segituan eman diote ikertzaileek: senegaldarrak ziren, ez ziren kristauak. Zumaia hilerriko hobi komunean emango zieten lur.

Nazkatzeko lain kakahuete

Egun haietan arreta handiz jarraitu zuen gertaera *La Voz de Guipuzcoa* egunkariak. Azaltzen du nola joan ziren pixkanaka bizirik zeudenak erreskatatzen eta hildakoak jasotzen; eta kontaktzen du, baita ere, kakahuetez josita azaldu zirela Gipuzkoako kostaldeko bazterrak. Imanol Azkuek horrela kontaktzen du liburuan Jose Manuel Linazasororen kontakizunean oinarrituta: "Askok hartu eta etxera eraman zituzten; etxean, lehortzeko lurrean zabaldu eta gero txigortu egin zituzten. Nazkatu arte jan zuten kakahuetea". "Así como nosotros hizo todo el pueblo, en mi vida he comido tanto cacahuete", idatzi zuen Linazasorok bere koadernoan.

Paul Hundius, itsaspeko kapitaina

Erasotzaileei buruzko informazioa falta zitzaaien iketzaileei historia biribiltzeko, baina aurkitu zuten hura ere. Lehen Mundu Gerran arma eraginkorrak ziren itsaspekoak, artean ez baitzegoen haiek antzemateko tresnarik. Itsasbideetan murgiltzen ziren, zamaontziak hondoratuz etsaiari lehengaiak eskuratzea oztopatzeko. Zeregin horietan zebilen UB-103 itsaspekoa 1918ko uztailean Kantauri itsasoan. Urtebete lehenago eraiki zuten Hanburgoko (Alemania) Blohm&Voss ontziolan, eta urte hartan egin zuten Paul Hundius itsas armadako kapitain. UB-103aren kargu hartu zuen Hundius, eta urtebetean 70 itsasontzi hondoratu zituen –horietatik, bakarra zen gerraontzia–.

1918ko uztailearen 16an Zumaia parean *Lyndiane* suntsitu eta handik gutxira, abuztuaren 14an, UB-103 itsaspekoa Flandriako uretan hondoratu zen betirako, ustez, Alemaniako itsas armadak berak jarritako mina batekin istripua izan eta gero. Han hil ziren Paul Hundius kapitaina eta eskifaia; han bukatu zen 1918ko uztailearen 16an Zumaia parean hasi zen gerrako historia harrigarria. ■■■


Clinica Dental · Hartz Klinika

RPS: 16/18



Ane Ibarretxe

Hartz klinika berria
Zumaian,
Ardantzabide auzoan



ANE IBARRETXE hartz klinika

Ardantzabide, 3 behea

www.aneibarretxe.com · info@aneibarretxe.com

943-54 35 70 · 688 73 38 56



**Casa
BASUSTA**
LORATEGIA

Ezkontzak, Batailoak, Jaunartzeak

Lore-zentruak, Koroak

Landare naturalak eta artifizialak

Zermika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18

Tel. 943 862 611



Tatuajeak: modaz haratago dagoen kultura

Edozeinek izan dezake tatuaje bat gorputzean. Emakumeek zein gizonek, gazteek zein helduek. Batzuek agerian eramango dituzte eta beste batzuek ezkutuan. Baina zer dago tatuajeen munduaren atzean? Kultura bateko partaide izateko gogoa? Edo itxurakeria hutsa? Horri buruz hitz egin dugu beraien gorputzetan tatuajeak dituzten lau zumaiarrekin, baita Greyline Tatoo estudioko tatuatzaileekin ere. Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.



Julen Muñoz eta Pablo Hernandez.

Onartu behar dut tatuajeen mundua erabat arrotza egiten zaidala. Nire ezjakintasunean tatuajeak 'bizitza arriskutsuko' edota rock munduarekin lotu izan ditut betidanik. Ez dut tatuajerik nire gorputzean, ezta piercing edo belarritakorik ere. Eta ez da nire gorputza tenplu ukiezintzat jotzen dudalako. Ez, ez da hori. Zalantzata naiz. Kamiseta bat erosteko orduan zalantzak baditut, zer esanik ez betiko (laserra dela medio agian ez hain betiko) geratuko den tatuaje bat egitea erabakitzen badut. Ez dut esango gutxiengo bateko partaide naizenik, baina egia da gero eta jende gehiago jartzen dela tatuatzaileen eskuetan. Batzuek *tattoo* txiki batekin nahikoa izango dute, eta beste batzuentzat prozesu luze baten abiapuntua izango da.

Teknologia asko hobetu da denborarekin. Duela gutxi arte tatuajeak betiko ziren. Denborarekin asko eta asko damutuko ziren tatuajeren bat egiteagatik. Ez da hori lau zumaiar hauen kasua. "Damutu? Inoiz ez. Egindako tatuaje guztiak ondo jakinda egin ditut", dio Telmo Amilibiak. "Tatuajeagatik ez naiz damutu. Bai, ordea, aukeratutako lekuagatik", dio Ian Brittenek. "Gero, gertatu zait hasierako tatuaje haiek zuri-beltzean egin nituela eta orain kolorea ezagutu dudala. Berriro hasiko banintz, koloretan egingo nituzke". Elena Bernalen kasuan erabilitako teknologiagatik damutzen da. "Bazen pigmentazioa erabiltzen zuen neska bat. Halakoa egin nuen, baina denborarekin borratzen joan zen. Hura estaltzeko tatuaje handi bat egin behar dut. Horretan nabil", azaldu digu. "Damutu agian ez, baina dudan bat egiteko aukeratu nuen tokiagatik bai. Leku horretan egin izan ez banu, ikusi ditudan

Ian Britten

18 urte zituela egin zuen Ian Brittenek (31 urte) lehen tatuajea. "Buru hezur bat izan zen. Irabazi nuen lehen soldatarekin ordua eskatu nuen Zarauzko estudio batean. Orduan ezagutzen nuen estudio bakarra zen", dio. Tatuajeen munduak txikitatik erakarri zuela dio lanek. "Rockeko taldeak jarraitzen nituen: Metallica, Machine Head, Pantera... Bideoak ikusten nituen, kontzertuetara joaten nintzen, eta haiek guztiek tatuajeak zituzten. Hala



sartu zitzaidan tatuajeak izateko gogoa".

Garezurra izan zen lehena, baina ez bakarria. Bi urteko epean dragoi bat eta ezker beso osoa egin zituen. "Gero lauzpabost bat urte egon nintzen ezer egin gabe, baina erritmoa hartu nuen berriro eta beste besoa, hanka, sorbalda eta bularra egin nituen. Aurten beste hiru tatuaje egin ditut nahiko garrantzitsuak izan direnak eta ez dut uste denbora asko egongo naizenik gehiago egin gabe", onartu digu.

Telmo Amilibia

Telmo Amilibiak, *Motxuk*, (36 urte) 20 urte pasatxo zituen lehen tatuajea egin zuenean. "Maori itxurako aurpegia izan zen eta bizkarrean egin nuen. Tatuajeen mundu honek atentzioa eman izan dit betidanik. Gurasoei baimena eskatu nien eta ezezkoa jaso nuen. Behin lanetik atera nintzen, marrazkiak ikusi nituen eta aurpegi hori aukeratu nuen". Aurpegi haren ondoren



makina bat tatuaje egin ditu Telmok. "Bizkarreko maoriaren ondoren beso bat osorik hartzen zidan tatuajea egin nuen, San Antonioren irudi bat eta aitonaren aurpegia ere tatuatu nituen". Jarraitzeko asmoa du Telmok. "Gorputz osoa tatuatzeko beldurrik ez dut. Aurpegia kenduta beste dena egingo nuke. Bizitzak aukera ematen badit, jarraituko dut", dio.

Elena Bernal

Elena Bernalek (41 urte) esanahia duten tatuajeak ditu gogoko. “Egin ditudan guztiek dute esanahia eta bederatz egin ditut”, dio. Egindako lehena gogoratzean irribarra atera zaio. “Barra kode bat da. 20 bat urterekin egin nuen eta eduki nuen lehen mutilaren telefono zenbakia zen. Orain damutzen naizen? Ez, bizitzan izan dudana esperientzia baten

ondorioa da. Nire gurasoei hasieran ez zitzaion gustatu, baina gero grazia egin zien”.

Bederatzi tatuaje ditu Elenak gorputzeko leku desberdinetan, eta azaldu digu gehiago egiteko asmoa duela. “Denek dute esanahi edo ideia bat. Proiektuarekin jarraitzeko asmoa dut, betiere ideiak badituz eta tatuajea egiteko dirua ere bai”.



Ainhoa Caporossi

Ainhoa Caporossi (25 urte) da lauretatik gazteena. Tatuajeen zalea izateaz gain, Greyline Tattoo estudioan egiten du lan. 15 urterekin egin zuen lehen tatuajea, tximeleta bat, sabelaren albo batean. “Tatuaje bat egin nahi nuen. Berez garezur bat egin nahi nuen, baina amak ez zidan utzi eta azkenean tximeleta aukeratu nuen. Tatuajeen estetika gustatzen zitzaidalako egin nuen; baina, baita ere, ez dut ukatuko, nuen adinarekin halako errebeldia bat erakutsi nahi nuelako”.



Bizpahiru urte geroago bigarren tatuajea egin zuen, eta ordutik, urtero, beste pare bat gehitu ditu. “Horietatik guztietatik bizpahiru izango dira esanahia dutenak. Besteak diseinuagatik edo gustukoak ditudalako egin ditut”. Jarraitzeko asmoa du. “Limite bakarra, agian, aurpegian egitea da. Bekain gaineko tatuaje batzuk ikusi ditut eta gustatzen zaizkit, baina neure buruan ez ditut ikusten. Agian Zumaia bezalako herri txiki batean biziko ez banintz animatuko nintzateke”.



diseinu berri batzuk hor egingo nituzke”, gaineratu du Ainhoa Caporossik.

Hiru urteko arrakasta

Julen Muñozek (28 urte) eta Pablo Hernandezek (26 urte) makina bat tatuaje dituzte beraien gorputzetan, bata besteari adiskidetasun froga moduan egindakoak ere bai horietako bat edo beste. Bi zumaier hauek Greyline Tattoo estudioa zabaldu zuten orain hiru urte Zumaian, Patxita Etxezarreta kalean. Orain bizpahiru hilabete ospatu zuten estudioaren urteurrena eta, aldi berean, haren arrakasta. Sona handia hartu du estudioak denbora gutxian eta Zumaia-koak bakarrik ez, beste herri askotako bezeroak ere badituzte. Zazpi edo zortzi hilabeteko itxaron zerrenda izan dute. Orain lasaiago daudela diote. Hori bai, urrira arte lan gehiago ez dutela hartuko ere gaineratu digute [elkarrizketa ekainaren hasieran egin dugu].

“Denbora azkar pasa da. Ireki genuenetik ez gara gelditu ere egin. Orain ondo gabilta, baina hasieran kostatu zitzaigun jende asko zebilelako”, dio Pablok irribarre batekin. “Asko pentsatu gabe ireki genuen. Ondo ateratzen bazen, aurrera. Inguruan ez zegoen antzeko estudioirik. Jende asko animatu da eta zaplaztekoen bidez ikasi dugu”, gaineratu du Julenek.

Baina nola hasi ziren bi gazte zumaier hauek mundu honetan? “Italian praktika batzuk egiten ari nintzela tatuajeak egiten zituen pertsona bat ezagutu nuen”, gogoan du Julenek. “Marraztea gustukoa izan dut beti eta tatuajeen mundu horrek erakarri egin ninduen. Zumaia-ara itzuli nintzenean tatuajeak egiteko materiala erosi nuen Internet bidez eta handik pixka batera lagunekin probatzen hasi nintzen”. Pablaren kasuan ilustrazioko ikasketak egiten ari zen Bilbon tatuajeen kulturak dei egin zionean. “Julen tatuatzen hasi zen eta jakin-mina sartu zitzaidan. Etxean azal sintetikoekin probatzen eta diseinuak egiten hasi nintzen, dena tatuajeekin lotuta. Handik gutxira hasi nintzen gorputzetan egiten. Hiru bat diseinu egin nituen azal sintetikoan eta nire gorputzean egin nuen lehen tatuajea. Gero Juleni egin nion hurrengoa eta lagun bati beste bat. Hasiera hartan gauza txikiak egiten nituen, simpleak”. Gero etorriko zirenen zirriborroen modukoak ziren lehen lan haiek.

Gaur egun lau tatuatzaile ditu Greyline Tattoo estudioak. Pablo eta Julenez gain, David Larrak eta Aitziber Egibarrek egiten dute lan bertan. Estudioak bere estiloa duela uste dute bi zumaierrek. “Bezero batzuk Davidengatik etortzen dira, beste batzuk Julenengatik... Batzuk tatuatzailearen bila etortzen dira eta beste batzuek tatuajea bera dute gogoko. *Tattooaren* kultura ezagutzen duen jendea tatuaje hori egingo dizunaren bila joango da, Madrilerara, Bartzelonara edo behar den tokira”, dio Pablok.

Bihotzetatik eta ainguretatik urrun


Tattooaren kultura esamoldea sarritan erabiliko dute Julenek eta Pablok hizketaldian zehar. Tatuajearen munduak bilakaera handia izan duela ere nabarmendu dute. “Lehen Estatu Batuetako tatuatzaile tradizionalen liburuak erabiltzen zituzten tatuajeak egiteko. Gauza berririk ez, ez zuten askorik asmatzen. Gu

ilustratzaileak ere bagara eta diseinua ere lantzen dugu. Beraz, zerbait berria egiteko aukera ere badugu. Bihotzak eta aingurak egitetik, erretratuak eta norberari okurritzen zaiona egitera pasa gara tatuatzaileok”, azaldu du Pablo Hernandezek.

Bilakaera horrek badu, ordea, distiraz betetako bere alde iluna, eta hauxe da: kultura izatetik moda izatera pasatzea. Itxurakeria asko dagoela uste dute bi tatuatzaileek, eta sare sozialek areagotu besterik ez dutela egin. “Lehen ez zegoen Instagram, Facebook edo halakorik eta tatuajeak aldizkari espezializatueta bakarrik agertzen ziren. Orain badaude futbolariekin bakarrik lan egiten duten tatuatzaileak. Argazkietan kirolariekin agertzen dira, baina egindako tatuajeak ez dira gero agertu ere egiten”, salatu du Pablok. “Etorriko zaizu jendea esanaz Cesc Fabregas futbolariaren tatuaje bera nahi duela. Normala ere bada: gazteek futbolariak jarraitzen dituzte eta haiek egiten dituzten gauzak nahi dituzte, tatuajea izan edo orrazkera bera eduki. Tatuatzaileak giro horretan daude orain, jende ezagunarekin harremanetan jarri nahian. Lehen ez zen horrela: lehen tatuajeak berak zuen garrantzia, eta ez tatuatzaileak nor tatuatzen duen. Horrek du orain garrantzia, zenbat jarraitzaile dituen sareetan, zenbat sari dituen. Sare sozialek hori dena puztu egin dute”, azpimarratu du Julenek. “Gaur egun inoiz marraztu ez duen jende asko ari da sartzen tatuaje munduan. Modan dagoelako sartzen da eta jende asko ez da ari zuzen. Ez da ondo egiten. Pentsatzen dute jendea tatuatu egiten delako eta dirua dagoelako edozeinek egin dezakeela”, amaitu du Pablok.

Etereotipoak edo aurreiritziak hausten dira. Adin guztietako lagunek egiten dituzte tatuajeak, emakumeek eta gizonek, gazteek eta helduek, marrazkiak erakutsi nahi dituztenek eta norberarentzat gorde nahi dituztenek. “Hemen denetik izan dugu. Hasieran semea etorri izan zaigu, gero ama, ondoren izeba... Behin gizon bat etorri zitzaigun ilobekin. Haien Erregetako oparia tatuajea egitea zen”, dio Julenek. “Jende batek betidanik izan du tatuatzeko gogoia, baina aurretik ez du egin hemen inguruan estudiorik ez zegoelako. Hau zabaldu genuenean jende pila bat etorri zitzaigun”, nabarmendu du Pablok. “Batzuek tatuaje txiki batekin nahikoa izango dute. Beste batzuek handiagoa nahiko dute, sorbalda osoa edo”. Prozesua luzea dela dio Pablok. “Beso bat osorik egiteko bospasei saio behar dira, eta saio bakoitza 7-8 ordukoa izan daiteke, segidan, baina atsedenekin”.

Bezzeroaren desioen arabera diseinua egiten dutela diote. “Hitzordua ematen diogu eta bezperan marrazkia erakusten diogu. Zerbait aldatzea nahi badute, hori da momentua. Bestela, tatuatu egingo diogu”, dio Pablok. Gai aldetik ez dute betorik jartzen, baina bai, agian, pertsona jakin batentzako diseinua egokia iruditzen ez bazaie. “Pentsatzen badugu tatuajea ez dela ondo geratuko, bezeroa ideia batekin badator eta guk uste badugu ez duela funtzionatuko, ez diogu egingo. Beragatik, baina baita ere guregatik. Agian oker egon zaitezke eta gero ondo geratuko zaio. Baina askotan badakigu ez dela hala izango, ez marrazkia itsusia delako, gorputzean ez zaiolako ondo geratuko baizik”, esan du Pablo Hernandezek. “Beno, norbaitek haurdun dagoen poni bat duen ortzadar bat eskatzen badu, ez diot egingo!”, amaitu du Julenek, barre artean. ■■■



**ITXURAKERIA ASKO
DAGOELA USTE DUTE BI
TATUAZAILLEK ETA
SAREEK AREAGOTU
EGIN DUTELA**

**"PENTSATZEN BADUGU
TATUAJEA EZ ZAIOLA
ONDO GERATUKO
BEZEROARI, EZ DUGU
EGINGO"**

Nork bere itxura onena emateko baliabideak eskaintzen

Irene Esnal, irudi aholkulari baten lanak

Formak, koloreak eta testurak ikertzea da bere egitekoa; baita bezeroaren izaera, gustuak, estiloa eta bizimodua aztertzea ere. Guztia, egunerokoan horren ohikoa dugun ekintza bat errazteko: janzea. Izan ere, arropak funtzio praktikoaz gain (hotzetik, eguzkitik... babestea), funtzio sozial handia dauka. Zentzu horretan, nork bere irudi onena emateko baliabideak eskaintzea da Irene Esnalen (Zumaia, 1986) lana. Irudi aholkularia da Esnal, eta bere ofizioa zertan datzan kontatu dio *Baleikeri*.

Testua: **Maialen Odriozola**. Marraskia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

A skotarikoak dira irudi aholkulari batek eskain ditzakeen zerbitzuak. Kolore probak egitea da horietako bat. Pertsona bati ondoen doakion tonalitate gama zehaztea da kolore analisiaren helburua. Armairu analisia da eskaintzen duten beste zerbitzuetako bat: norberak etxean dauzkan arropak aztertu eta horiekin egin daitezkeen *look* onenak ezagutzea da xedea. Egun berezietarako janzkera egokiena bilatzen ere lagun dezakete. Norbanakoen kasuan ez ezik, taldeka ere egiten dute lan, adibidez, negozio bateko uniformeak aukeratzen laguntzen. Profesionalei begirako beste zerbitzu bat da denda arduradunei bildumak erabakitzen laguntzeko aholkulari lanak egitea.

Esnalen iritiz, bezeroa ondo ezagutzea da zerbitzu horiek guztiak arrakastaz gauzatzeko gakoa. Hori horrela, bere ofizioaren barruan dagoen psikologia lana nabarmendu du. Izan ere, denbora epe laburrean saiatu behar du beregana jo duen pertsona horren inguruan ahalik eta informazio gehien lortzen. Adina, izaera,

bizimodua, zer gustu eta behar dauzkan... aintzat hartu beharreko aldagai garrantzitsuak dira. Horrez gain, zer espektatiba dituen edo zer bilatzen duen ere jakin behar du. Esnalek, adibidez, informazio hori guztia lortzeko, galdetegi bati jarraitzen dio. "Nire esperientziaren arabera, bezeroak ondo ulertzen direnean lortzen dira emaitza onenak", azpimarratu du.

Lan hori aurrera eramateko orduan, batez ere, bi gai hartzen ditu kontuan irudi aholkulariak: batetik, arroparen diseinua aukeratzeko, adina, bizimodua eta gorputzaren forma aztertzen ditu; bestetik, pertsona bati ondoen doakion kolore gama zehazteko, berriz, azal, ile eta begi koloreak hartzen ditu kontuan. Horien guztien gaineko ikuspegi profesionala eskaintzen dute irudi aholkulariek, edonori bere irudi onena emateko irizpide batzuk eman eta horren inguruan trebatzeko.

Izan ere, itxurak garrantzi handia du Esnalen iritiz, eta ideia hori berresteko, gogoeta egin duirudiaren gizartean bizi garela. "Begietatik sartzen zaigu dena", ziurtatu du, eta besteengan proiektatzen dugun irudia gure izaeratik banandu



irimara



ezin dugun zerbait dela ere bai. Nola asmatu, ordea? “Janzkera onena da norberari eta momentu bakoitzari ondoen egokitzen zaiona”. Gaia buruhauste gisa bizi dutenak, berriz, aukera moduan ikustera animatzen ditu: “Guztiantzat daude tresnak; tresna horiek erabiltzen jakitea da kontua”.

Norberari egokituta

Horretarako daude irudi aholkulariak Esnalen iritziz: irudia bere osotasunean ulertu eta baliabide horiek emateko. Izan ere, moda askotan gaizki ulertu izan dela ohartarazi du, eta nork bere irudi onena ematea pertsona guztien eskura egon behar duela aldarrikatu. Ildo horretatik, adierazi du mundu guztiak bere estiloa daukala, edozein izanda ere bere azal kolorea, adina, tamaina... “Batzuek uste dute *personal shopper*ek inposatutako patroï batzuei jarraitzen diegula, baina aurkakoa da: gure egitekoa da edonori bere gustu eta estiloak errespetatu eta gehien gustatzen zaion irudia ematen laguntzea”. Hala, ziurtatu du bere lana norbere irudia hobetu nahi duen guztientzat dela, ez gorputz mota bat edo aurrekontu jakin bat dutenentzat.

Horren adibidetzat jarri du, hain zuzen ere, bere ikonoetako bat, 70 urteko andre bat: Iris Apfel. “Oso benetakoa da. Berak ondo erakusten du modak ez daukala ez adinik, ezta neurrik ere. Nirekin ez dauka zerikusirik, baina asko gustatzen zait nola nahastean dituen gauzak”. Izan ere, norbere irudiarekin gustura egotea ezin da egon, Esnalen iritziz, patroï bati lotuta. Edonola ere, bere ibilbidean horrelako kasu asko topatu dituela dio. “Hasieran, ezezkoan etortzen dira batzuk, buruhauste askorekin, saltokietan ikusten dutenak ez duelako bat egiten bere gustu, gorputz edo estiloarekin... Horri buelta ematen saiatzen gara, beraien irudiarekin gustura egoteko baliabideak ematen. Amaieran, jendea normalean

pozik geratzen da, eta onena da itxura aldaketa ez ezik, irabazitako segurtasuna eta erosotasuna ere transmititu egiten dutela”.

Ondo antolatutako armairua, gakoa

Hainbat truku ere erakusten dizkie Esnalek harengana gerturatzen direnei, alferrikako erosketak ekiditeko; adibidez, armairua txukun mantentzea. “Armairuko arropa guztia bistan izatea funtsezkoa da”. Bestela jantzi batzuk atzean geratzen joaten direlako. “Denean bezala da, biltegi onik ez badaukazu, nola antolatuko zara? Nola aurkituko dituzu gauzak?”, galdetu du. Gaur egun, jantzi asko oso eskuragarriak direnez, aitortu du arropa gehiegi biltzen dela eta armairua ondo mantentzea ez dela erraza. Horregatik, Esnalen ustez, garrantzitsua da txukun mantentzea, batez ere, denboraldi aldaketetan.

Hamarkada bete modaren munduan

Ia jaiotzetik dauka modaren inguruko grina Esnalek. Hasieran jolas bat bezala bizi zuen; txiki-txikitik armairua ireki eta arropak

Irene Esnal Zubia

- **Adina:** 32 urte.
- **Ikasketak:** Publizitate ikasketak burutzeaz gain, irudiarekin lotuta, hainbat master eta ikastaro egin ditut.
- **Lanbidea:** irudi aholkularia
- **'Personal shopper' ez banintz...** ziur nago irudiarekin harremana duen zerbaitetan egingo nukeela lan.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Familiarekin eta lagunekin egotea. Horrez gain, kirola egitea ere gustatzen zait.



probatzen zituen. Heltzean, publizitate ikasketak egin zituen, baina haurtzarotik zuen zaletasuna profesio bilakatzea erabaki zuen, gero. Ordutik, erakunde esanguratsuetan jaso du irudiaren inguruko formazio profesionala: Madrileko Unibertsitate Complutentsean, Vogue eta Elle moda etxeetan...

Eskola onena, praktikatzea dela diote, ordea, eta *Hola* aldizkariko kolaborazioetan aurkitu zuen Esnalek bere ibilbide profesionalerako trampoline onena. Geroztik, bere lana ezagutarazten eta

iragartzen jarraitzeko, sare sozialetako jarduera eta hitzaldi eta gisako ekintzak ere uztartzen ditu. Eta, horrela, ibilian, hamarkada bete doa jada buru-belarri irudiaren munduan, lanbideak segurtasun gehiago izatea gustatuko litzaiokeela aitortuz, baina ilusioz eta pasioz lanean. Orain, gainera, etapa berri bat hasi du, duela gutxira arte lantoki izan duen firma utzi eta bere kabuz hasi baita. Bide berri bat, beraien irudi onena emateko laguntza nahi duten horiei guztiei aholku emateko prest. ■■■

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!

Webgunea: talasoterapiazelai.com
 Tel. 943 865 100
 Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era
 Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia
Zelai
 ZUMAILA

EGIN ZAITEZ BALEIKEKO BAZKIDE

Baleike komunikazio proiektua babestuko duzu urtean 40 euroko ekarpena eginda.

- Zumaiak **komunikabide propioa** izatea lagunduko duzu.
- Euskarak** Zumaian ere merezi duen bozgorailua izango du zure ekarpenari esker.
- Aldizkaria jasoko duzu hileroko **etxeko buzoian**.
- Baleikek argitaratzen dituen **bestelako argitalpenak** jasoko dituzu doan. Haurrentzako aldizkari berria, liburuak...
- Bazkide klubeko **txartelarekin hainbat abantaila** izango dituzu: deskontuak herriko dendatan, zozketetan parte hartzeko aukera...

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-mailez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

ARRUTI MODA: %5eko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN BITXIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAI: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

GAINDITUZ: Lau bono.

OTEZURI KAFETEGIA: Bi tarta San Markos.

MANDALA PAPERTEGIA: Bost euroko bost bale.

ITZURUN TABERNA: Lau lagunentzako afaria hileroko.

BQD BIDAIK: Lau bono.

YOANA ILEAPAINDEGIA: Hilean behin zozketa, ilea garbitu eta orraztu.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!



Asma ezazu mezu ezkutua. Esaera zahar bat da.



BEHIAK hitza osatzen duten hizkiak erabiliz, osa ezazu

SUDOKUA

Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	B			A	K
A	E		B	H	
	H	A	I		E
	I		H	B	
	A			E	
	K			I	



BEHIAK




ITZALA

Zein da irudiaren itzal zuzena?



Osatu

Erdizka margotuta dauden zazpi irudi hauetatik hiru elkartzuz gero, etxea behar bezala osatuko duzu. Batura horretan elementuek (kea, teilatua, atea...) behin bakarrik agertu behar dute koloreztatuta. Har ezazu kolore zuria gardena balitz bezala.



Gogoa non...

Jarraian zer datorren asmatzen baduzu, esaera zahar ezagun bat osatuko duzu.

- Gogoa non, begiak zoro eta bihotza edonon.
- Gogoa non, zu beti bertan.
- Gogoa non, lagunik ezin aurkitu inon.
- Gogoa non, normalki Amoroton.
- Gogoa non, poza beti da on.
- Gogoa non, lanak hor konpon.
- Gogoa non, zangoa han.

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00



Braky's
Okindegia Katedegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Tl.: 943 57 07 79
Móvil: 649 96 72 89

EGOKI



Erloju eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumaiak, Gipuzkoa
T. 943.143.057

EDU
ZUMAIAKO
OPTIKA

www.eduoptika.com

RPS 18/16

ekin
ZUMAIAKO, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943-14 30 97
ekin@ekin.si.com www.ekin.si.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV L**



ERNTÓ TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona



burdindegia

Mendataro mariniela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

garay
manufacture

BERTAKO DISEINU ETA EKOIZPENA

1989tik sukaltze altzarrietan lanean

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU:
Olaldea aldea 1 (Erratiberrí Industrialdea)
20.800, ZARAUTZ 943 13 31 09

www.garay.eus



Garoa



Carlos Cintero Ainhoa Olaizola
tel. 943 66 21 81
Txomin Agirre, 5th
70710 ZUMAIK (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behe
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



goiko bodegoia

Erribera, 9 · 943-86 13 91


Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behe
tel./faxa 943-86 60 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumala
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

www.academiarharvest.com

San Joses, 11 bis tel. 943-14 33 34

Nola egin aurre beherakoari



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Zer da? Normalean baino maizago libratzea (hiru bider edo gehiago egunean) egitea, eta eginkari bigunagoekin.

Zerk eragin dezake? Sarritan egoera onenean ez dauden janariak edo edariak hartzean gertatzen da. Bestalde, medikamentu mota batzuek (antibiotikoek, hain zuzen) eta egoera emozionalek (urduritasunak) ere eragin dezakete.

Ondorioa: beherako akutuak deshidratazio egoera sor dezake, batez ere haur eta adinekoei.

Zer egin dezakegu?

1. Likidoak edan eta hidratatu, apurka-apurka, 3 litro inguru egunean, jarraian baina behartu gabe:

- Etxeko gatzura (litro bat uretan hau bota: 4 koilarakada azukre, koilaratxo erdi gatz, koilaratxo erdi bikarbonato eta 2-3 limoiren zukua). Horren antzeko prestakin komertzialak ere saltzen dituzte.

- Arroz ura ere har daiteke (litro bat ur irakin 30 minutuz eskukada bete arroz botata, edan baino lehen, iragazi eta hoztu).

- Azenario ura (egosi ordubetez 250 g azenario txiki-txiki eginda ur litro batean, gatz apur bat ere bota daiteke eta edan baino lehen hoztu arte itxaron).

- Prestakin horiek hozkailuan gorde, baina ez 24 ordu baino gehiago.

- Ura edo kamamila infusioak ere onak dira.

2. Goitikak izanez gero, egon ordubete ezer hartu gabe. Gero, 10 minutuan behin hasi zurrutada laburrak edaten, edota hartu ur azukredun edo gatzura koilarakadak. Ez baduzu goitikarik, sarriago eta kopuru handiagoak hartu. Goitikak agertuz gero, hasi prozesua berriz ere.

3. Likidoak ondo hartuz gero, hasi apurka-apurka jaten. Ez egon baraurik 12-24 ordu baino gehiago eta janari bigunak hartu (arroz irakina, arroz krema edo azenario urarekin egindako arroza). Oilaskoa edo hegazti okela plantxan (azalik

gabea) has zaitezke jaten, Yorkeko urdaiazpikoa, arrain zuria (egosia edo plantxan), sagar errea, irasagarra eta platano heldua ere bai. Ahal dela ez hartu astebetean bestelako fruta edo barazki gordinik.

- Ez edan esnerik. Osatzen zoazen heinean, probatu ea jogurt naturalak on egiten dizun.

- Saihestu gozokiak, kafea eta gasdun edariak.

4. Eskuak sarri garbitu ur eta xaboiarekin, batez ere janaria prestatzen eta jaten hasi baino lehen, komunera joan eta gero, edo beherakodunen bat atenditu eta oihalak edo oheko arropa aldatu ondoren.

5. Errezetarik gabe ez hartu antidiarreikorik, ez bestelako medikamenturik.

Noiz kontsultatu medikuari?

1. Ondoeza orokorra bada, aho lehorra edo larruazala zurbila izanez gero.

2. 24 ordu baino gehiago sukar altua (39 inguruan edo gehiago) edukiz gero.

3. Sabel edo uzkie min zorrotz eta bizia sentitzean.

4. Gorozkietan odola edo mukia ikustean.

5. Goiko neurriak jarraituz, beherako eta goitikek 3 egunetan onera egin ez dutenean. ■■■

**LIKIDOA ONDO HARTUZ
GERO, HASI APURKA
JATEN. EZ EGON 12-24
ORDU BAINO GEHIAGO
BARAURIK**

PUBLIZITATEA



DOIA
Julio Beobide, 2
943-57 49 86



ilarzi
Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



INPERNUPE ELKARTEA
Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriando optika
Kantauri plaza, 8. Zumaita. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS
Ikuskizun orotarako soinu eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ ILEAPAINDEGIA
San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60



ORRAZTEGI ZUMAI A
943-86 20 83



JUARRISTI
jatetxea
Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua
Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77



JUSTA
taberna
Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943-86 14 05 justa@justataberna.com




KABI Patxia Etxezarreta, 15
943-11 74 27
TABERNA



Kaia Taberna
Pintxo goxoak
Otarterkoak
Plater konbinatuak
Txomin Agirre, 2
631 39 30 51



Kaithermik S.L.
Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak
Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



kalari
Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17



kuttun
lentzeria
erribera kalea tel. 943-11 79 36



LABARRA TABERNA
ZUMAITA
est. 2016
Ondarxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84



malaur



CROISSANTERIA
pizzak
hanburgesak
bokatak...
marina
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

Sexu harremanak nerabezaroan



IZAR ARREGI

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Nerabeen lehen irteerez eta alkoholaren arriskuez hitz egin nizuen aurreko hilabetean. Bada, alkoholarekin lotuta etortzen dira askotan lehen sexu harremanak.

Nerabeak eta gazteak, aparteko kasuak alde batera utzita, ez dira alkoholikoak, ez dute alkohola egunero kontsumitzen. Baina egia da, bestalde, parranda bakoitzeko neurririk gabe edaten dutela, eta horrek arrisku egoera handiak eragiten ditu: borrokak, istripuak..., eta kontrolik gabeko sexu harremanak.

Sexu harremanen inguruko mezuak mutur batetik bestera pasa direla esango nuke. Garai batean erabat debekatzailerak zen; gaur egun, berriz, ikusten dut "erabat aske zara" mezu ari dela nagusitzen. "Egin zure gorputzarekin nahi duzuna". Eta hori ondo dago pertsona helduez hitz egiten ari garenean –norberak ikusiko du zer egin–, baina mezu okerra da nerabeen kasuan. Lau urteko haur bati 200 piezako puzzle bat ematen badiogu zer egingo du? Puzzle osatzen hasiko al da? Ez, piezak ahoan ibiliko ditu. Nerabeekin berdin gertatuko da. Pieza gehiegi eskaintzen badizkiogu, galdu egingo da.

"Egin zure gorputzarekin nahi duzuna" esatea ondo dago,

pertsona horrek gaitasuna badu egoera ulertzeko. Nik uste dut gure nerabeek informazio gehiegi jasotzen dutela drogen eta sexuaren inguruan, baina nola jokatu behar duten jakiteko heldulekuak falta zaizkiela, ez dizkiegula irizpideak ematen.

Alkoholarekin bezala, sexu harremanekin ere presarik ez izatea da lehen aholkua. "Nahi duzuna egingo duzu, baina presarik gabe, zoaz pixkanaka, arriskuak kontrolatuz. Aurrena ezagutu zure gorputza, landu afektua, ez jarri zure burua arriskuan edozeinekin edozein tokitan". Nerabeei asko hitz egiten diegu haurdun ez gelditzeko metodoez, baina oso gutxi musuez, masturbazioaz, ez diegu galdetzen izan ditzaketan kezkez, ez dugu hitz egiten maitasunari buruz.

Eta, noski, gure inguruan zabaltzen bada normala dela 12 urterekin lehen sexu harremanak izatea, "Orduan zer egiten dut nik 16 urterekin oraindik musu bat eman gabe! Probatu beharko dut...", pentsatuko du batek baino gehiagok. Sexua polita eta ederra da, baina bizitza guztia dago gozatzeko. Hobe da bost piezako puzzleekin hastea.

Lehen sexu harremanen aurrean nola erantzun ere jakin behar izaten da. Normala da hasieran ondo ez pasatzea. Garrantzitsua da espektatiba handiegirik ez egitea, lasai

hartzea. Normala da zalantzak izatea, eta bakoitzak bere denbora behar du. Oraindik oheratzeko prestatuta ez dagoen gazteak aurrea esploratu egin behar du, laztandu, elkar ezagutu eta elkarrekin deskubritu. Baina erro karratuetara joan nahi badugu batuketak ulertu aurretik, gaizki ibiliko gara.

Lehen harremana traumatikoa izan bada, ez baditu espektatibak bete, nahasi egin daiteke pertsona eta ondorio okerrak atera. "Mutilarekin ez dut hain ondo pasa; orduan –pentsatu du–, agian, neska gustatuko zaizkit". Garbi du mutilak gustatzen zaizkiola, baina sexua probatu duenean ez du ondo pasa, ez da eroso sentitu. Eta orduan iruditzen zaio neska bat gozoagoa izango dela. Beraz, sexua baino afektua bilatzen du. Ez da ausartzen bere buruari onartzen, mutilari esaten, eta irtenbidea da neska batekin probatzea.

Gurasook mezu arduratsuak eman behar ditugu. "Libre sentitu behar duzu 20 urte arte mozkorrik ez harrapatzeko, eta ez alderantziz; libre sentimenduak izateko, sexua pixkanaka deskubritzeko, behartu gabe, azkarregi ibili gabe. Gurasooi dagokigu bide horretan laguntzea, gaia baztertu gabe. Gogoratu: nerabea konplexurik gabe ez da nerabe. ■■■

Gelidium *corneum*, urtutako gelatinaren afera

Itsasoak Itzurunera ekartzen dituen algak biltzeko ohitura handia egon da Zumaian, baina azken urteotan ez da ia oldizalerik agertu. Zergatik? Zer ari da gertatzen gure kostaldeko algekin?

Testua: **Gontxalo Torre / Geoparkeko ingurumen koordinatzailea.**


Argazkiak: **Gontxalo Torre eta Gorka Zabaleta.**

Mendealdean ohitura berri samarra den arren, antzinatek da ezaguna Txinan, Korean edo Japonian algek giza elikaduran duten garrantzia. Halere, gure inguruan algen (*Zumaian oldien*) erabilera ez da guztiz arrotza; Kantauri aldeko baseritarrek bildu ohi izan dituzte, sikatzen utzi ondoren larreak ongarrizko eta ukuiluetan ganaduen azpian jartzeko. Azken hamarkadetan, gure hondartzetan pilatutakoak ere jaso egin izan dira, horien artean galtzear dagoen *Gelidium corneum* izeneko altxorra aurkitzen baitzen.

Itsaspeko harkaitzetako alga edo oldi bizikorra da *Gelidium*, eta 0-10 metro sakoneko hondotan hazten da, olatuek gogor astintzen dituzten parajeetan. Tamaina handia eta egitura konplexua du, ekosistemaren estruktura eratzailea da eta baso antzekoak sortzen ditu. Hori horrela, itsasoko ekologian oso espezie garrantzitsua da, izaki askoren bizileku, aterpe eta janari iturri baita.

Hori gutxi balitz, agar-agar izeneko gelatina ekoizteko lehengaia ere bada. Esaterako, ohiko osagarria da flanak, marmeladak eta izozkiak egiteko, edota eguzkitako kremetan substantzia babesgarri gisa erabiltzeko. Horretarako jaso izan da itsasertzean, baita itsasotik atera ere, ustiatzeko tramankuluak erabiliz.

Alabaina, azken 30 urteetan euskal kostaldeko toki askotan alga mota honek nabarmen egin du atzera, ia desagertu arte. Horren ordez, beste alga txiki eta arrunt batzuk agertu dira, eta askoz ere pobregoak diren zelaiak osatu dituzte. Ikertzaileak gainbeheraren arrazoiei buruz zuhur mintzatzen dira, baina uste dute horren



Itzurungo hondartza oldiz beteta. GONTXALO TORRE

PUBLIZITATEA



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea
 Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
 mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA KARROZERIAK
 Etengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
 609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar Indurigunea, C
 20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
 Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
 zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

"Muagi"
 errehabilitazioa
 kirol medikuntza
 fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943-86 16 91



OLIDEN
 construcciones y reformas, S.L.
 647 04 01 56
 686 91 12 57
 oliden@olidenreformas.com

OLIDEN arkitektura
 678 87 56 52
 943-14 30 93
 lur@olidenreformas.com

ZARAUZT - ZUMAIA
 www.olidenreformas.com

Fabrikak
 Tolatuak
 Eteberrak
 (Sokorloak, barnegotak)
 Industrien marrazimendak
 Mota guztietako igelberritze lanak

Eteberraren inpezio teknikal (ITE)
 Zertifikatu onargarriak
 Fabrikaren diseinua eta aholkularitza
 Eteberraren berron diseinua
 Mota guztietako proiektuak



OSA BERNIZATUAK
 Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
 Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49



OSKARBI KIROLAK
 Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
 oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA
 OSTOLAZA ZUMAIA S.L.
 Joxe Mari Korta Indurigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
 Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
 www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
 altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
 Julio Beobide ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak
 Etxeak eta dendak
 Enpresa eta auzo lanak
 Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53



SOLOZABAI autoeskolak
 Etxezarreta, 19 • 943-861416
 zumaia@solozabalautoeskolak.com



Talaraia
 taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
 taberna

Erribera kalea
 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izustari, 3
 tel. 943-86 52 89

TXALAPARTA
 OPARIAK

Auzo 2
 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 tel. 943-14 30 89
 faxa 943-43 06 37

TXIMISTA
 garagardotegia

Opitartekook
 Plater konbinatuak
 Txerri-ukondoak (kadilloa)
 Saltxitzak, oilaskoak...
 Garagardoak aukeran

Ondarritz plaza, 4 beheko tel. 943 573 905



UKENDU
 PARABOTIKA
 BELARDENDA
 Aitziber Etxeberria Garro
 Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
 taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
 Tel.: 943-11 63 97



Garai batean urtero etortzen ziren oldizaleak Itzurunera.

ESKERRAK

Euskal Herriko Unibertsitateko Itsas Bentos Ikerketa Taldeari emandako laguntzagatik.

ITSASOKO URAREN TEMPERATURA ASKO IGO DA, 23 GRADUKO LANGA ERRAZ GAINDITZEN DA UDAN

OLDIEK ERRESISTENTZIA GALDU DUTE ETA OLATUEK ERROTIK ERAUZTEN DITUZTE

atzean klima aldaketa egon daitekeela. Arrazoiak bilatzen hasita, faktore bat baino gehiago dagoela dirudi.

Batetik, itsasoko uraren temperatura asko igo da; azken hogeit urteotako udetan aise gairitu du 23 °C-ko langa. Alegia, Maroko aldeko uretan alga honen distribuzio eremuaren hegoaldeko mugan ohikoa den temperatura. Beraz, pentsatzekoa da hain ur epeletan *Gelidium*aren biziraupena kolokan jartzen dela.

Bestetik, adituek diote Kantauri itsasoan nutrienteen eskuragarritasuna murriztuta dagoela; euri gutxiago egin izanak eragin du ibaiek sedimentu gutxiago garraiatzea. Horren ondorioz, itsasoko ura gardenagoa da eta alga ahuldu egiten da.

Dena den, badira beste faktore batzuk ere kontuan hartzekoak. Uraren gardentasuna dela medio, eguzkiaren erradiazio mailak gora egin du itsasoan, eta horrek kaltetu egin du algen garapena. Erradiazio handiegiak maila apaleko erradiazioak bezain beste mugatzen du fotosintesia, horretan espezializatutako zelulak saturatu egiten direlako. *Gelidium*aren kasuan, EHUko ikertzaileek zenbait ondorio atera dituzte: aldaketa fisiologiko eta biokimikoez gain, erradiazio handia jasotzen duten lekuetan oldiaren ale dentsitatea eta biomasa txikiagoa da, algaren taloa (gorputza) ahulagoa, eta zenbait kasutan horituta agertzen da.

Bestalde, Azti teknologia zentroak egindako ikerketen arabera, *Gelidium*aren gainbehera itsas denboraleekin dago lotuta.

Nonbait, aipatutako eragile horiek guztiek oldien erresistentzia gutxitu dute, eta olatuek errotik erauzten dituzte algak.

Gauza bat edo bestea dela, lehengo baratzeak basamortu dira orain. Eta iaz Itzurunen ikusi izan zen moduan, urertzean pilatzen diren algen artean apenas dago *Gelidium*-ik. Horrenbestez, hura aurkitu ezean, algak jasotzea alferrikako lana denez, bertan uzten dituzte oldizaleak.

Bistan denez, ondorioak nabarmenak dira, oldiak aurrera eta atzera ibiltzen baitira uretan, olatuen eta maren kapritxoaren menpe. Eta osasunarentzat kaltegarria ez den arren, badago kexu azaldu denik ere, bainua hartzean deseroso sentitu delako, edo hondarretan pilatutakoaren usaina sumatu duelako.

Ikusteko dago egoera hau aurtengo udan errepikatuko den, baina garbiketa zerbitzuek alga horiek kendu behar badituzte, badirudi klima aldaketak denon patriketan eragingo digula. ■■■

Kartoizko kaxa bat



TESTUA: IMANOL AZKUE

Beste lan baten arrastoan, Oikiako lehengusuei galdetu nien ea bazeukaten gure aittittaren familiaren argazki zaharrik, eta horrela iritsi zitzaidan Pikaondobekotik kartoizko kaxa bat, zuri-beltzezko argazkiz betea. Gehienak famili argazkiak ziren, ospakizunetakoak-eta (ezkontzak, sanbartolomeak, jaunartzeak...), baina tartean bazeuden beste batzuk desberdinak, garai bateko bizimoduaren berri ematen dutenak, eta horietako batzuk ekarri nahi ditut hona, horien gaineko ohar xume batzuekin.

Urolako trenbidea egiten.

Urolako trenari bidea egin behar zaio, eta pareko oztopo guztiak kendu egin behar, burdinbideak aurrera egingo badu, ordekan eta ahalik eta zuzenen. Langile kuadrilla ederra, sasoiak, ari da lanean, baina gaur argazkilaria etorri da eta esan die mesedez lana uzteko, argazkia ateratzeko, eta prestatu egin dira; mailaka jarri dira, ateratzen ari diren harri pilaren gainean, denak ondo ikusteko moduan, gehienek laneko erremintak eskuan: gaztetxoek tuntuxak, beste batzuek aitzurrak, pikatxoiak, borrak, burdinazko palankak... Batzuek ahoan belarra (seguru asko almitza) ere badaukate, egarriari gogor egiteko. Ia ezpainak mugitu ere egin gabe,

baten ahotsa entzun da, ahapean: "Igal hemendik 100 urtera baten batek zerbait idatziko dik baleiken, gure argazkiari begira...".

1883tik eskatu eta eskatu ari ziren tren ailarako herriak, eta azkenean 1920-1926 artean eraiki zuten. Arroatik Iraeta arteko zatian dago aterata argazkia.

Oikiarrak Kontxan 1930ean. Bi aste lehenago Zarauzko bandera irabazi ondoren, 1930eko irailean Oikiako San Bartolome trainerua Kontxan aritu zen, Donostia, Getaria, Orio, San Juan eta San Pedorekin batera. Bi jardunaldietan azkena izan zen, eta bigarrenean Donostiarekin jokatu zuen kontsolazio txanda. Baina nori inporta zaio hori? Garrantzitsua ez al zen, ba, estropadan zparte hartzea eta marko inkomparablean arraun egitea?

Garia mozten. Ez da ohikoa baserrietan gosea pasatzea, animaliez gain, baratze eta soro emankorretan denetarik lantzen delako: artoa, baba, patata, berdura... Baina gaur egun nekez aurkituko dugu Zumaia inguruetan lehen erruz lantzen ziren bi labore: garia eta tabakoa. Argazkian, gizon batzuk ageri dira Oikiako erriberetan, Epeola (Epiola) baserriaren azpialdean, gaur egun A8 autopista-Pollos Oikina dauden inguru horretan, eta

atzealdean Dornutegi (Turruntei) ikusten da; gari sailean daude, eta bat makurtuta ageri da, garia nola mozten zen erakutsi nahiko baligu bezala. Zumaiaiko mapa toponimikoan, inguru horretan Larrain izena dago jasota, hau da, garia jotzeko lekua, eta ez da izango kasualitatea.

Auzolana. Seguru asko belar sail handiren bat moztu beharko zuten, bost segalari horrela elkartzeko, bakoitza bere erremintarekin. Horrelakoetan, baserri batekoak nahikoa ez eta ingurukoei eskatzen zieten laguntza, txandan-txandan auzolanean aritzeko, gaur hirean, bihar gurean. Batzuek moztu egiten zuten, eta atzetik beste batzuek zabaldu; gero, buelta eman eta ondo lehortu ondoren, zuhatzak (edo belar metak) egiten zituzten, neguan animaliei zer jan emana izateko.

Zenbat eta zenbat kartoizko edo latorrizko kaxa egongo dira ahaztuta, "ondo gordeta", Zumaian? Zenbat argazki eder, garai bateko bizimodua, gertaerak, zumaierak... akordarazten dizkigutenak? Eta ba al dakigu zergatik atera zuten? Zer irauarazi nahi izan zuten une hartan? Ezagutzen al ditugu argazkietakoak? Ni, behintzat, zorionekoa naiz: lau hauetan ezagutu dut gure aittitta, Manuel Ibarbia Aldasoro. ■■■



Garia mozten.



Auzolana.

ESKERRAK

Ebari, argazkiak uzteagatik, eta Javier Carballori, argazki zaharrak berritzeagatik.

ZUZENKETA

Aurrekoan ("Estanis Azkue: egin eta egin, isil-isilik"), jartzen zuen Inaxio Uribe egin zituela Aitz-gain etxearen planoak eta paperak, eta ez da zuzena; izan ere, anaiak, Joxek, egin zituen.

OHARRA

Hemen azaltzeko moduko zumaiarik edo gertaerarik ezagutuz gero edo oharririk/ zuzenketarik egin nahi izanez gero, jarri harremanetan:

imanol@azkue.eus



Urolako trenbidea egiten.



Oikiarrak Kontxan 1930ean.

KULTURA

Margolari bokazioa zuen grabatzailea

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Askotan ez da erraza artisauaren eta artistaren arteko muga non dagoen jakitea. Are eta gehiago artisau batzuek artelanak egiten dituztenean. Muga horren alde batean eta bestean aritu zen Jose Kareaga. Haren heriotzaren 10. urteurrenean, Zumaiarekin lotura estua zuen eibartar honen erakusketa zabaldu dute Alondegian.

1930. urtean Eibarren jaioa, grabatzaileen semea eta biloba zen Jose Kareaga. Berak ere bide bera jarraitu zuen. Eibarreko edozein kaletan ohikoa izaten zen grabatzaileen mailuen kolpeak entzutea. Mailu horietako bat zen Kareagarena. Erretiroa hartu zuen arte hura izan zuen ogibidea. Berak egin zuen, adibidez, Ignacio Zuloaga margolariaren mendeurreneko domina, eta 1994an Gipuzkoako Ganberak diploma bat eman zion grabatuen alorrean egindako lanagatik.

Lanegunak grabatzera dedikatzen zituen, baina asteburuak eta jaiegunak beste pasio batek hartzen zuen: margolaritzak. Pinturarako zaletasun goiztiarra izan zuen. “Gaztea zela, Elgetara joaten zen familia oporretara eta hangoak dira lehen akuarelak”, dio Leire Kareaga alabak. Elgeta, Durango edo Eibarreko paisaiak ikus daitezke lehen lan horietan. Olioarekin lanean hasi



zenean espresionismoaren eta inpresionismoaren mugan zeuden margoak egin zituen. “Oihalak eta margoak hartu eta margotzera joaten zen. Indarra bazuen egunean koadro bat egiten zuen”, dio alabak.

2008. urtean zendu zen arte ehunka koadro margotu zituen Kareagak eta horietatik 20 inguru erakutsiko dira Oxford aretoan. “Garai guztietako lanak aukeratu ditugu, baina, bereziki, 1970eko 1980ko hamarkadetakoak”. Horiez gain, hasierako akuarelak eta marrazkiak ere erakutsiko dituzte. “Marrazkien koaderno pila bat zuen. Batzuk gero koadrotara eraman zituen, eta besteak bere horretan utzi zituen”.

Grabatuko lanak, diseinuak, erremintak eta lan prozesua ere erakutsiko dituzte. Iazko abenduan erakutsi zituzten lehen aldiz Eibarren, jaioterrian, egindako erakusketa batean. Zumaiakoa da Jose

Kareagaren inguruan egiten den bigarren erakusketa.

Kareagak harreman estua izan zuen Zumaiarekin. “1950etik aurrera aitarekin eta aitonarekin etortzen zen Ignacio Zuloagaren alargunarekin hitz egitera. Gero, Uranga hotelean egiten ziren tertulietan ere parte hartu zuen”. 1962tik aurrera eibartar beraneanteen koloniako kide izan zen eta lanerako estudioa ere izan zuen Larretxon. Zumaiako Kaleko pintura lehiaketako epaimahaikide ere izan zen. “Tratu errazeko pertsona zen, eta horregatik ditu jendeak hain oroitzapen onak”.

Erakusketarekin batera, www.josekareaga.eus webgunea ere zabalduko dute, bere lanak sarean erakusteko. ■■■

***Oxford aretoan uztailaren 22ra arte. Ordutegia: astelehenetik igandera: 18:30-20:30. Asteburuetan eguerdian ere bai: 12:00-14:00**

AGENDA

UZTAILA

13 OSTIRALA

ZUMB+TIKTARA+ASTINDU.
Ondartxo plazan, 22:30etan.

14 LARUNBATA Surf Festa

Kale antzerkia: Lapurminak, Cia.
Tornado.
Erriberan, 20:00etan.

Surf Festako kontzertuak.
Izurunen, 22:00etan.

21-22

Udako Merke Azoka.

21 LARUNBATA

Kontzertua: Gari eta Bidelapurrrak
Eusebio Gurrutxagan, 22:00etan.

28 LARUNBATA

**Euskal Artista tailerrak
haurrentzat.**
Torreberrin, 18:00etan.

UZTAILAK 31-ABUZTUAK 11

Zumaia Musika Jaialdia.

ABUZTUA

4 LARUNBATA

Gala eguna.

10 OSTIRALA

Euskal Jaia.

15 ASTEAZKENA

Kaleko pintura lehiaketa.

18 LARUNBATA

Kuadrila eguna.

15 ASTEAZKENA

Kaleko pintura lehiaketa.

24 OSTIRALA

San Bartolome Eguna Oikian.
Festa egitarau zabala asteburu
osoan.

MUSIKALDIA-XXXV EDIZIOA

UZTAILA 31 ASTEARTEA

LEZ Laukotea-aurkezpena.
Oxford aretoan, 20:00etan.

ABUZTUA 1 ASTEAZKENA

San Pedro Abesbatza.
Parrokian, 20:30etan.

ABUZTUA 2 OSTEGUNA

KHAMI.
Aita Marin, 20:00etan.

ABUZTUA 3 OSTIRALA

Organo kontzertua: Jose Mari
Beobide gogoratuz
Parrokian, 20:30etan.

Ikusi programa osoa.



Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla

- plater konbinatuak
- ogitar tekoak
- oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA



ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com



BASADI, 12
20750 ZUMAIA
tel. 94386 1018 / Fax: 94301 61 26

Zumaia Hotela
Jaietxea
Kafetegia



Alai ezuztegia - 20750 Zumaia - tel. 943-14 34 41 - faxa 943-06 51 61

Bizitzak mugara eramaten gaituenean



BIHOTZ HANDIEGIA

Egilea: Eider Rodriguez
Argitaratzailea: Susa
Argitaratze urtea: 2017
Orrialdeak: 160
Generoa: Narrazioa



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Zer da literatura, irakurtzen gozatzea ez bada. Eta azkenaldian irakurlea gozaraziz dabilena, zalantzarik gabe, Eider Rodriguez dugu. Horretarako bere ohiko luma zehatz eta zorrotza darabil egunerokotasunaren egoera arruntena disezionatzeko, zirujau baten bisturiaren prezisio berdinez, egoera arrunt horren atzean azaltzen diren kontraesan guztiak agerian utziz. Eta ez nolana, gainera, esaldi bakarra nahikoa du ipuin osoaren erritmo eta tonua zein izango diren zehazteko, gaurko liburuko lehenengo ipuineko lehen esaldia horren adibide. Baina ez dizuet hemen halakorik jarriko, irakurri eta kito.

Lau dira gaur arte Eider Rodriguezek argitaratu dituen liburuak: *Eta handik gutxira gaur* (Susa, 2004), *Haragia* (Susa, 2007), *Katu jendea* (Elkar, 2010) eta *Bihotz handiegia* (Susa 2017), guztiak narrazio liburuak, eta

guztiak gomendagarri zein irakurri beharrekoak, baina gaurkoan bere azken lanari helduko diogu.

Bere azken fikziozko lanetik zazpi urte igaro arren, idazle bezala hazi egin dela suma genezake. Bere ipuinak neurritz luzeagoak izateaz gain, azken finean gai bat baino gehiago jorratu nahi dituelako ipuin berean, besteek zer nahiko luketen baino, arduratzen duten kontuez idatzi duelako oraingo honetan.

Sei narraziok osatzen dute *Bihotz handiegia* liburua. Azalean inolako loturarik ez duten arren, bada ipuin guztietan presente dagoen gaia: muga. Ipuin gehienak Hendaia

eta Donostia artean kokatu arren, ez da muga fisiko edo geopolitiko inondik inora presente, gizakiak muturreko edo ez hain muturreko egoeretan, mugaren alde batean izatetik ohargabeen beste aldean kokatzeko duen gaitasuna baizik, kariñotik indiferentziara, hunkiduratik higuinera edo maitasunetik gorrotora. Azken finean, arrotzasunaren eta egunerokotasunaren arteko talkak sorturiko mugak dira presente daudenak.

Muga horiek baliatu nahi izan ditu Eider Rodriguezek gizakiaren nortasuna zein identitatea zeinen aldakorra izan daitekeen adierazteko. Horren adibide garbia liburuari izenburua ematen dion lehendabiziko ipuina, non emakume bat hilzorian den bere senar ohia zaindu beharrean aurkitzen den, alabak hala eskatuta, eta heriotzaren presentzia horrek bestela egingo edo pentsatuko ez lukeen gauzak egitera eramaten duen. ■■■

**ARROZTASUNAREN ETA
EGUNEROKOTASUNAREN
ARTEKO TALKAK
SORTURIKO MUGAK
DAUDE PRESENTE**

Azala erre



AMAIA IRAZABAL

Danele Sarriugarteren bigarren nobela irakurri dut. Udaberri euritsua izanik ere, azala erretzeko parada izan dut, Miren protagonistaren azalean jarrita izan bada ere. Ez babesteagatik erretzen gara, neurriak hartzen ez jakiteagatik. Eta horixe gertatzen zaio Mireni, gorputzean eta bizitzan.

Baina batzuetan gure buruarengandik babestu behar dugu. Eta orduan kremek ez dute balio. Agian horregatik da istorioko protagonista diren bi artista hauen gatazken osagai oinarrizkoa goa. Noraino naiz ni, noraino kanporako sortu dudana pertsonaia, noraino besteek nigandik espero dutenaren saiakera?... Horiek eta gehiago hausnartzera garamatza nobelak, bi gazte, haien identitate berri edo ustez benetakoaren bila dabiltzala, heldutasunera bidean.

Oraingoan ere ondo zukutu ditu idazleak pertsonaien erraiak eta gorputzetik pasa zaizkigu haien errusiar mendi emozionalak. Umore gaztunarekin gainera, pasarte

motzetan idatzia, denboran saltoka. Zizka-mizka gozoan ibiltzea bezalakoa izan da. Gaur gaurko istorioa kontatzen du, Donostia eta Bartzelona eszenatoki, artista giroa gertu dugunok aise identifikatzeko "argazkiekin". Argazkilariak baitira biak, Miren eta Jon, bakoitza bere moduan, desberdin, original bezain negatibo. Baina hemen ezin dena errebelatu.

Zer errebelatu, zer ez, artistaren erabakia da, izan beharko luke. Idazleak badu enigmatiko-misteriotsu-magiko eusteko aukera edota prozesuaren "aldamioak bistan" jarri, makinaria ikusteko moduan. Danelek, kasurako, misterioa galdu du, baina niri, behintzat, bihotza irabazi dit. Hiru orrialdeetan. Beste 116

**EZ BABESTEAGATIK
ERRETZEN GARA,
NEURRIAK HARTZEN
EZ JAKITEAGATIK**

orrialderen atzetik datozen hiru orrialdeetan. Ia bi urte eta erdiko bidea eta gero argia pozik ikusi zuten 116 orrialde landuren atzetik datozen hiru orrialdeetan. Fikzioa eta errealitatea elkartzen diren puntua ikusgarri jarri digu, laugarren pareta hori hautsiz, irakurleari begietara begira mintzatuz. Izan ere, eskerrak emateko modu berezia hautatu du Danelek. "Ez nuen zerrenda bat egin nahi, nobelaren historia kontatu nahi nuen."

Sormen prozesuak haurdunaldiak dira, argitara eman arte eten daitezkeenak, eta denbora horretan sortzaileari eta bere inguruari gertatzen zaion edozerk, txikia irudituta ere, eragina du azkeneko emaitzan. Eta azken hori maite baduzu, bide osoa maite duzu, bere sasi, arantza eta oztopoekin. Atzera biratu eta bidegurutzez jositako bideari begira diezaiokezu harrিতuta, eta azala kasualitatez erre duzula pentsa dezakezu haserre, edota Aloe Vera igurtzita nola indartsu birsortzen den ikusi. ■■■

Zaletasun zimeldua



JUAN LUIS ROMATET

Zinezale porrokatua izan naiz. Astean bizpahirutan joaten nintzen zinera. Asteazkeneo 15:30eko tren hartu eta Donostiara joaten nintzen pelikularen bat ikustera. Asteburuan Zumaian zerbait txukuna botatzen bazuten, astelehenetan joaten nintzen. Baita batzuetan pelikula bera behin baino gehiagotan ikusi ere. Ostarrenako kide ere izan nintzen urte askotan. Etxean goizaldera arte zain egon izan naiz pelikula bat grabatzen jartzeko. Bai, bideoa programatu zitekeen, baina Antena3eko pelikula bat goizeko 03:00retarako iragarrita bazegoen, 02:30ean edo 03:30ean has zitekeen, eta VHSko bideo zinta haiek limitea zuten.

Denborarekin zaletasuna zimeltzen joan zait. Lantokiz aldatu nuen eta ez nuen lehen bezainbateko denbora Donostiara joateko. Baina horrek baino gehiago, azken urteotan zinean sumatu dudana umekeriak bota nau atzera. Izan ere, superheroien pelikulez eta komedia txepel frantziarrez aparte (zer kalte egin duen *Intocable* hark), ezer gutxi ikusten dut funtsezkoa karteldegian. Donostiara joateko, behintzat.

Ez naiz superheroien pelikulen zalea. Batmanen pelikulak gustatzen zaizkit, baina, aizue, Batman ez da superheroia, mendekatzailea baizik; frikien akademiako lehen urtean erakusten dute hori. Ez Thor, ez Spiderman, ez Superman... horiek guztiak pelikula berean nahasten dituzten mazedonia koloretsu eta zalapartatsuak ez ditut gogoko. Baina horrelako pelikulekin zapaltzen gaituzte uneoro. *Avengers: War of the Universe* edo antzeko zerbait ez denean, Spidermanen beste *reboot* bat dugu. Benetan, nerabe bat ez den inork jasan al dezake Peter Parkerren eta Mary Janeren beste erromantze edulkoratu bat?

Hala ere, nire mania partikularren panteoian *Star Wars* dago. Ez naiz izan saga horren jarraitzailea. Lehen pelikula 1977koa da, baina nik bi hamarkada geroago ikusi nuen Zarauzko Eroskin erositako VHS batean. Hurrengo biak ere ikusi nituen, eta, halako fama izanda, hotz samar utzi ninduten. Bigarren trilogiak aspeeeeertu egin ninduen, eta saga berpiztu omen zuen orain bizpahiru urteko lerdokeria hark aspertu ez, nazkatu egin ninduen. Gogoan dut lagun batek esan zidala sekulakoa zela eta igartzen zela gidoilariaren lana. Bai, eta ni Albert Riveraren fana naiz! Hura izan zen ikusi nuen azkena. Hala ere, ez dago fenomenotik libratzerik: sagako beste kapitulu bat estreinatzen duten bakoitzean hedabideak kolonizatzen dituzte. Ai, Disneyren txeke horiek...

Orain urtebete inguru galdera hau luzatu zuten The Guardian egunkari britainiarrean: "Imajina al dezakezu zure bizitza *Star Wars* gabe?" Ez nuen asko pentsatu behar izan: bai. ■■■

**NIRE MANIA
PARTIKULARREN
PANTEOIAN STAR
WARS DAGO**

229€

144x55zm

**TEKA
FTM221**

**BALEIKE
%5
BAZKIDEA**

**ORDAINDU
12 HILABETEAN**
Interesik gabe

269€

160x55zm

**TEKA
FTM321**

**TEKA Hozkailua
FTM221 / FTM 321**

**SALTZEAZ
GAIN,
ARRETA ERE
EMATEN
DUGU**

TIEN 21



www.endañetazumaia.com

Udako argazkiak Lehiaketa



Seguru udan hamaika argazki aterako dituzula, oporretan, festetan, lagun artean... **Anima zaitez** eta parte hartu **BAILEIKE** antolatatu duen lehiaketan. **Sari bikainak dauzkazu zain!**

- Parte-hartzaile **bakoitzak bost argazki** aurkeztu ahal izango ditu (jpg, 5mb gehienez). Filtro digitalik ez da onartuko.
- Argazkiak bidaltzeko epea: **irailaren 16ra arte**.
- Parte hartzeko: **aldizkaria@baleike.eus** edo **baleike.eus** webguneko formularioaren bitartez.

Baleike.eus-en aurkituko dituzue oinarri guztiak.

Antolatzailea

BALEIKE.eus

Babesleak

bqgd bidaiak
viajes - travel

BEHEKO PLAZA
Jateokoa eta etxea
Restaurante asador

SARIAK:

1. Epai-mahaiaren saria: bi lagunentzako **asteburu pasa** bqgd bidaiak eskainita.
2. Interneteko saria: **bi lagunentzako jatordua Beheko plaza** jateokoa.
3. Bozketan parte hartzen dutenen artean, **Uzkudun jateokoa emandako bi lagunentzako bazkari/afaria** zozkatuko dugu.



UZKUDUN
Babeslea

Esteko Gintxologi Saria, 19-20759 Zumaira (Gipuzkoa)
Tel. 943 11 03 87